



BIDEONISTAGMOGRAFIA PRESTATZEA

1. Proba honek 60 minutu inguruko iraupena du.
2. Zenbait sendagaik emaitzak alda ditzakete, eta beharrezkoa da zuk funtsezkoa ez den medikaziorik ez hartzea proba egin baino 48 ordu lehenago. Zehazki, honako hauek saihestuko ditu:
 - Lasaigarriak.
 - Antihistaminikoak.
 - Lo egiteko medikazioa.
 - Bertigoaren aurkako tratamenduak
 - Gripearean- eta katarroaren aurkakoak.
3. Proba egin baino gutxienez 3 ordu lehenagotik elikagairik hartu gabe joan behar duzu; era berean, saihestu egin behar duzu edari alkoholdunak eta kafea hartzea miaketa egin aurreko 48 orduetan.
4. Proba egin aurreko 5 orduetan ez duzu erre behar.
5. Komeni da beste norbaitekin joatea.
6. Lentillak erabiltzen badituzu, ez joan horiek jantzita. Betaurrekoak erabiliz gero, horiek jantzita joan.
7. Ez joan makillatuta, ez aurpegiko beste edozein krema hartuta (krema hidratatzaileak, bizarra moztu ondorengo krema, larruazala sendotzeko kremak, aurpegiko krema tonikoak, etab.). Etxetik irten aurretik, garbitu aurpegia ura eta xaboia erabiliz.
8. Ikusmen-arazoren bat baduzu, ohartarazi proba egin aurretik.